

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Behin betiko onestea kreditu gehigarriaren 9/2024 espedientea

Bat etorri Toki Erakunde Aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 34.3 eta 34.15. artikuluetan eta 2024 ekitaldiko Aurrekontua Betearazteko Arauaren 13. artikuluan xedatutakoarekin, eta ez denez inolako erreklamazio edo oharrik egin udalbatzak 2024ko irailaren 20ko ohiko bilkuran onetsi eta 2024ko irailaren 30ean, astelehena, ALHAOn argitaratutako kreditu gehigarriaren 9/2024 espedienteari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, espediente hori behin betiko onetsita geratzen da, era honetan:

LEHENENGOA. Onspena ematea indarrean dagoen aurrekontuko kredituak aldatzeari, 9/2024 kreditu gehigarriaren modalitatean, 155.198,00 euroko guztizko zenbatekoarekin, honako laburpen honen arabera:

Kreditua gehitzeko espediente honek barne hartzen dituen gastuen eta baliabide ekonomikoaren zerrenda.

Erakunde honetako alkate-lehendakariak udalbatzari aurkeztu dio indarrean dagoen aurrekontuan gehitu nahi diren gastuen zerrenda, ondoren zehazten diren aurrekontu partidetan:

PARTIDA	GASTUAREN IDENTIFIKAZIOA	ZENBATEKOA EUROTAN
9430734001	EKARPENA PAGANOSKO ADMINISTRAZIO BATZARRARI	25.000
GUZTIRA		25.000

Zenbateko hori honako baliabide hauen bidez finantzatuko da, eta espedientea parekatuta eta defizitik gabe geratuko da:

Handitu beharreko diru sarreren partidak edo erabiliko den diruzaintzako gerakina:

DIRU SARREREN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA EUROTAN
87001	DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	25.000
GUZTIRA		25.000

Udal honetako kreditua gehitzeko 9/2024 espedientea behin betiko onesten duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da

Guardia, 2024ko urriaren 25a

Alkate-lehendakaria
RAUL GARCÍA EZQUERRO